

# Maitagarria eta desira

Mariasun Landa

www.mariasunlanda.net

Jendeak ez badaki ere, maitagarriak oso despistatuak izan daitezke. Batez ere malenkonia instant batek harrapatzen dituenean. Segundo eskas bat izan daiteke baina maitagarrien segundoak ordu asko izan daitezke gizakientzat, aste pila usoentzat, hilabete mordoan arrain gorrientzat, eta makina bat urte inurrientzat.

Honako istorioa hau maitagarri batek malenkonia instant hori izan zueneko unean hasten da. Etxe bateko zabalza gainean hegan zihuala, hara non malenkonia instant horrek jo eta terraza batean erori zen, zuhaitz batetik erortzen den hostoaren antzera. Eta hantxe geratu zen, eguzkitan lehortzen ari zen arropa mordoaren artean endredatuta, oihalezko kroketa bihurturik.

Arropa zabaltzen ari zen orduantxe Aeiou neskatoa txundituta geratu zen hura ikusita, eta zutitzen lagundu zion berehala maitagarriari.

— Nor zara? —galdetu zion maitagarria baino mamua zirudien izaki arraro hari.

— Maitagarri bat naiz. Une batez malenkoniatsu jarri eta erori egin naiz, baina ondo nago. Maitagarriak ondo gaude beti.

— Ah! Pisurik ez duzuelako!

— Ez dugu pisurik ezer ez zaigulako pasatu, denboragabeak gara, ahalguztidunak.

Aeiouk aho zabalik begiratzen zion bere aurrean edertasun lilugarri eta distiratsua hartzen ari zen izaki berriari.



Arantxa Paskual Elustondo

— Badakizu zorte handia duzula ni eza-  
gutzeaz, maitagarri bati lagundu ahal izanaz.  
Aipatu desira bat eta berehala beteko da, hauxe da  
nire ordainsaria

— Desira bakarra?

— Ba bai... behin bakarrik erori naiz eta —  
erantzun zion maitagarriak, neskatoak zeken eta  
zuhurtzat hartzen zuelakoan.

— Bale!

Eta Aeiouk begiak hertsu, ezpainak estutu  
eta hausnartzeari ekin zion, matematikako  
buruketa zail baten aurrean bezala. Neska azka-  
rra izateaz gain, irakurzale amorratua zen beraz,  
gogora ekarri zuen hainbat ipuinetan entzun-  
dakoa: arriskugarria zela berehala desira bat  
eskatu eta desira hori betetzea. Hori gertatu eta  
gero, ipuinetako gizon edo emakume haiek ez  
ziren inoiz asetzen, dohakabe eta zorigaiztoko  
sentitzen ziren betiko.

Denbora pixka bat hartu zuen: minutu batzuk  
Aeiourentzat, ordu pare bat usoentzat, astebete bat  
arrain gorrientzat, urteak inurrientzat.

— Une honetan, hauxe desio dut gehien: zu  
bihar berriro etortzea gauza bera galdetzeraz

Erantzun ezin harrigarriagoa maitagarri ba-  
tentzat.

Are gehiago, hurrengo urte luzeetan erantzun  
bera jaso baitzuen egunero-egunero.

Eta hori ez zen, hain zuzen, Aeiouk desira  
eta nahirik ez zituelako izan. Alderantziz. Urteak  
joan, urteak etorri, une zoriontsu eta alaiak adina  
izan zituen une larri eta estuak Aeiouk, andre heldu  
bihurturik. Lan, osasun, diru, maitasun arazoak izan  
zituen barra-barra. Hitz batean esanda, desira bat  
izan eta hura betetzeko ezin konta ahala aukera  
izan zituen ile urdin-urdina izan arte. Eta denboraldi  
luze hartan guztian, egunero, maitagarri malenko-  
niatsuak erantzun berbera jaso behar izan zuen:

— Zu bihar berriro etortzea eta gauza bera  
galdetzea

Urte pila pasatu ziren Aeiourentzat, men-  
deak usoentzat, milurtekoa arrain gorrientzat, argi-  
urteak inurrientzat

Harik eta egun bat heldu zen arte, non mai-  
tagarriak ohiko galdera egin baitzion azken aukera  
zela jakinik.

— Ez dut jadanik gogo edo grina berezirik.  
Zure bisitaldiak bizitzen lagundu didate, nire nahia  
desiratzea baitzen. Desiatzea desio nuen.

Esaten dutenez, irribarrez hil zen Aeiou.

Eta irribarre hura maitagarri batek bere  
bizitza eternalean inoiz ikusi duen irribarrerik enig-  
matikoena izan zen.

